

HITZ EGITEN DUGUN EUSKARAZ

Itziar Aduriz


Ez da hizkuntzetan aditua izan behar edo Euskal Filologian doktore ala lizentziatua izan behar jakiteko Errenteriakoek hitz egiten dugun euskara desberdina dela, bertako arbasoak dituztenena batez ere. Batutik desberdina da, eta baita inguruko herrietakoetatik ere. Seguru asko ados egongo ginateke esango banu ez dela arras desberdina, baina bai badituela ezaugarri berezi batzuk bestelako egiten dutenak. Eta nahiz eta guk euskara hori erabili ez, gure gurasoak beste bazter batekoak direlako edo euskara batua ikasi dugulako etxekoen erreferentziarik gabe, segituan ezagutzen ditugu ezaugarri horiek baten bati entzuten dizkiogunean: *kartzen digute, kato, irriyo, biño, etab.*

Horretaz ere konturatu zen gure herritar estimatu eta famatu zena, Koldo Mitxelena, eta bere hizkuntzalaritzako senari jarraituta goian aipatu dudan kontu horri buruz behin baino gehiagotan hitz egin eta idatzi zuen.

Mitxelena bat zetorren Errenteriako hizkera Oiartzunen, Irunen, Hondarribian eta Aranon erabiltzen den hizkerarekin lotzen zuen teoriarekin eta multzo berean sartzen zituen. Alegia, erdialdeko hizkerak dira (Gipuzkoako lurralde administrati-boaren barruan daude gainera) nafarrerako euskararako iragaitean aurkitzen ditugunak, batzuetan erdialdeko euskararen eta bestetan nafarreraren nahiz nafar-lapurteraren barruan kokatzen dituzten isoglosen artean baitaude.

Ez zen bakarria horrela pentsatzen zuena, izan ere, Bonaparteren euskalkien sailkapenean oinarritu ziren guztiak iritzi horretan bat zetozen eta hala, iraganean egindako sailkapen guztiek ipar-nafarreraren kokatzen zituzten hizkerok, Irungo aldaeraren barruan, hain zuzen ere.

Bestalakoak izan da Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta dialektologian aditua den Koldo Zuazoren sailkapena (egin den azkena). Zuazok erdialdeko hizkeratzat hartzen ditu hauek guztiak, zehazkiago esateko, Irunaldeko erdiguneko hizkeratzat nafarrerarazko joera dutenak. Eta Errenteriako eta Lezokoak multzo horretatik bereizi ditu erdialdeko hutsekoetzat joz.



Sailkapenak sailkapen, errenteriarrok aipatu herri horiekin (Oiartzunekin, Irunekin, adibidez) oso harreman handia izan dugula esango nuke, bertan daudelako eta joera handia izan dugulako elkartzeko. Horregatik ez zaio inori arraroa egiten Mitxelenaren baieztapen hori nahiz eta gu geu ere konturatu, hala ere, gurea desberdina dela, azken sailkapenean adierazia geratu den bezala.

Erreflexio eta iritzi hauek guztiak, ordea, ez dute izan oinarrian ikerketa-lanik, ezta ondorioak atera ahal izateko herritarren hitzen grabaziorik ere. Joera hori aldatu zen Josep del Rio katalana gaian jarri zenean, 2005 urte inguruan.

Bartzelonako Unibertsitatean (UB) Filologia Katalanean lizentziatua, Errenteriako hizkerari buruzko tesiarekin doktore egin zen 2010. urtean, UBn bertan. Ze pentsatu behar nuen nik nire ikasle izandako batek horrelako saltsetan bukatuko zue-nik!!! Ikasle saiatua hasieratik, ikasten ari zen lizentziaturarekin zerikusi handirik ez zuten euskarari buruzko irakasgaietan matrikulatu zen, eta lizentziatu ondoren ere euskararen inguruan lanean jarraitu zuen, euskara txukun menderatu arte.

Bere tesia Bartzelonan defendatu zuen baina Errenterian ere aurkeztu zuen 2010ean eta *Bilduma* aldizkarian argitaratu urte berean.

Lana egin ahal izateko eta ondorio finagoak atera ahal izateko hainbat grabazio egin zituen eta inkestagileak *Lau Haizetara* elkartearen inguruko boluntarioak izan ziren. Urteak pasa badira ere oraindik gogoan dut zer laguntza handia izan zen jende honek eman ziguna. Eta ezin ahaztu Inaxito Albisuren animoa eta adorea lan honekin jarraitzeko.

Inkesten eta lanaren ondorioak garbiak dira. Mendebaldeko formen eraginez, ekialdeko euskararen eragin-eremua ahulduz doa Gipuzkoako euskalkietan barneratu ahala eta euskaraz alfabetatu gabeko belaunaldiak desagertu ahala. Edo beste

modu batean esanda, mendebalderanzko joera erabatekoa da hirurogeita bost urtetik beherako hiztunen artean.

Nabarmenezkoa da, bestalde, hizkerak gero eta gehiago homogeneizatzen ari direla azken urteotan, euskara batuaren eraginez behar bada, eta, horren ondorioz, edozein azterketaren emaitzak aldatu egingo lirakeke berriemaileak gazteak edo adinekoak diren. Izan ere, gazte gehienak euskara batuan daude alfabetatuta, eta hizkeren homogeneizazioa dakar horrek, argi eta garbi ikusten den moduan (gogoratu behar dugu Josep del Riori azterketan hiru adin-talde bereizi zirela).

Gauza asko geratu zaizkio egiteko Josep del Riori, bere laneko ondorioetan aipatzen duen bezala. Izan ere, egin zuen azterketa finagoa izan daiteke, baserrietako errealitatea kontuan hartuz, adibidez, etab.

Gauzak horrela, garbi dago norantz goazen eta erremediorik gabe, euskara baturantz goazela ematen du, gure herriko euskararen berezitasunak neurri handiagoan ala txikiagoan gordez, pertsonaren arabera. Hizkuntza bizia da eta mugimenduak ditu. Zerbait izateko, hala ere, hitz egin egin behar dugu dena delako hori, batuagoa ala nafarreragoa, bestela gureak egin du. Eta hori gure esku dago.